



2014KO URTARRILAREN 10EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hamarrean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estenso-ro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko abenduaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Alkateak esaten du, ordaintzea premiazkoa zelako, 81 zbk.dun zerrendako faktura, HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (350 €)koa, alkatetzaz onartu zela eta orain Tokiko Gobernu Batzar honi horren berri eman eta baietsi dezan eskatzen dela. Tokiko Gobernu Batzarrek onarpen hori berretsi egiten du.

Bestalde 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 82 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (23.596,87€)takoa, bere espedientean dagoena, onartzea erabakitzen da.

III.- IBILGAILUEN ASEGUROEN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2013ko abenduaren 10eko foru aginduaren bitartez, SEGUROS BILBAO (IFZ.:A48001648) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ibilgailuen aseguru estaldurak emateko esparru akordioa (X-13016) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarri dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluaekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.



Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2014ko urtarrilaren 8an emandako txostenaren arabera proposatu du ibilgailuen aseguru estaldurak emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SEGUROS BILBAO enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ibilgailuen aseguru estaldurak emateko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X13016) SEGUROS BILBAO enpresari (IFZ.: A48001648) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- SEGUROS BILBAO, N.I.F.:A48001648, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, ibilgailuen aseguru estaldurak gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]